



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

MEDIKUNTZA  
ETA ERIZAINITZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE MEDICINA  
Y ENFERMERÍA

# OSASUN PUBLIKOA MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Master hau funtsezko tresna da Osasun Publikoaren jardun profesionalerako. Ikerketa arloko galderen etengabeko iturria da jarduna bera, eta auzi horiek, gainera, zentzua ematen diote bai jarduera zientifikoari, bai ikertzaile eta profesional berrien prestakuntzari ere. Horren bitartez, gure Osasun Publikoak eta Medikuntza Prebentiboak aurrez aurre dituzten erronkei erantzun ahal izango diete.

Osasun Publikoa Unibertsitate Masterreko ikasleek honako helburu hauek lortuko dituzte:

- Epidemiologiaren alorrean ikertzaile lanak egin, bikaintasunaren mailako bere eginkizunak ikasketa erakundeetan eta klinika eta biztanleriaren inguruko ikerketa zentroetan betez, eta osasun administrazioetan Osasun Publikoaren jardun profesionala gauzatzuz.
- Epidemiologia metodoa aplikatu, gaixotasunen eragileen ikerketan, osasun kudeaketan eta gaixoen maneiatze klinikoan.
- Azterketa epidemiologikoak diseinatu, datuak biltzeko tresnak garatu eta balioztatu. Datuak jasotzeaz eta landa lana gainbegiratzeaz arduratuko diren langileak trebatzea, baita datu base bat kudeatzen eta ikerketako galderei erantzun ahal izateko azterketa estatistiko egokiak egiten ikasi.
- Literaturaren berrikuspen sistematikoa eta sintesia egin, agentzia publiko edo pribatu batek finantza dezakeen ikerketa esparru batean. Izen handiko aldizkari zientifikoetan argitara daitezkeen lanak idaztea.
- Ikerketa taldeetan sartzea eta, hala badagokio, horiek zuzentzea.

---

## SARBIDEA

---

Osasun Zientziak (Medikuntza, Farmazia, Albaitaritza, Erizaintza, Nutrizioa, Psikologia, etab.) eta Gizarte Zientziak (Soziologia, Gizarte Lana, etab.).

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Profesional adituak epidemiologia ikerketan, osasun arloko ikerketa unitate eta institutuetan, ospitaleetan eta Lehen mailako Osasun Arretaren eremuan Profesional trebatuak Epidemiologia eta Bioestatistikan, industria farmazeutikoan eta Clinical Research Organizations delakoetan.

---

## ONINARRIZKO INFORMAZIOA

---

**Eskolak emateko lekua:**

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa) Donostiako eta Gurutzetako Irakaskuntza Unitateak.

**Irakaskuntza mota:**

Farmazia Fakultatea (Vitoria-Gasteiz).

**Hizkuntza:**

Eskolan bertakoa.

**Gutxi gorabeherako prezioa:**

Gaztelania.

**Egutegia:**

2.150-2.350 euro.

Irailetik ekainera.

---

## IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

---

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko Gaiak <hr/> 27 ECTS kreditu	Hautazko Gaiak <hr/> 17 ECTS kreditu	Proiektuak / Ikerketa-lanak <hr/> 16 ECTS kreditu	Guztira <hr/> 60 ECTS kreditu
--	--	---	----------------------------------

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

---

- Osasunaren gizarte baldintzatzaileak eta osasun publikoa XXI. mendean.
- Metodo estatistikoak eta oinarriko programen erabilera Osasun Zientzietan.
- Protokoloa sortzea eta ikerketa proiektua egitea.
- Epidemiologia eta demografia: printzipioak, metodoak eta osasunerako aplikazioak.
- Epidemiologiari eta osasunari buruzko oinarriko azterlanen plangintza eta garapena.
- Epidemiologiari eta osasunari buruzko oinarriko azterlanen plangintza eta garapena: metodo aurreratuak.
- Ebidentzietan oinarritutako erabakien kudeaketa eta bere tresnen erabilera osasun zerbitzuetan: ebaluazioa, literaturaren berrikuspen sistematikoak eta praktika klinikorako gidak.
- Osasun publikoko programak EAEn.
- Osasunaren ekonomia.
- Farmakoepidemiologia.
- Nutrizioari lotutako epidemiologia eta ikerketa.
- Gaixotasun transmitigarrien prebentziorako esku-hartzeak.
- Datu baseen erabilera osasun publikoan.
- Gaixotasun ez transmitigarrien prebentziorako esku-hartzeak.

---

## HARREMANETARAKO

---

**Arduraduna:**

Aitana Lertxundi Manterola

**Tel:** 94 601 5649

**Posta elektronikoa:**

aitana.lertxundi@ehu.eus

